

# HONG KONGEKO BESTE BORROKALARI EZEZAGUNAK AZKEN BARATZEAK DEFENDITZEN DITUZTEN NEKAZARIAK

Milaka asko herritar mobilizatu dira asteotan Hong Kong ingeles kolonia ohian, Pekingo aginte zentralaren aurrean beren autonomia aldarrikatuz, munduko telebista guztiek erakutsi dituzten manifestazioetan. Globalizazio kapitalistaren ikur nagusietakoa da Hong Kong hiria eta honen hazkunde arrakastatsua eragin ditu biktimak ere etxean, tartean baserritarrak. Bakan batzuek borrokan diraute azken soro eta baratzeei bizirik eutsi nahian.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

**S**outh China Morning egunkariaren aurtengo titular bat: “*Fanling eta Kwu Tung herrietako garapen plana ‘Hong Kongeko nekazari txikiak hiltzen ari da’, salatu dute*”. Shirley Zhao kazetariak horrela laburbildu zuen Hong Kongeko Gobernuak bi auzune horietarako abian jarritako garapen planaren kontrako protestan entzundakoa.

Gobernuak baimendu du lehen fase batean 21.000 etxebizitza berri eraikitzea eta plan osoa amaizterako 71.800, denetara 2031rako ingurura 190.000 biztanle berri ekarriz. Hirigintza plan berriak 47.000 milioi dolar hongkongtar mugiaraziko ditu, 5.399 milioi euro. Nekazariak nozituko dute ordaina: 445 etxalde txiki galtzea dago aurreikusita, asko etxebizitza bana dutenak, beste asko laboreen ondoan bizitzeko adinako etxolaz hornituak.

Askok onartu dituzte lurren trukean emandako kalte-ordainak, baina gutxienez Ma Shi Po auzoko 30 familiak salatzen dute ez direla egokiak. Yuen Yat-tien baserriar eta Mapopo izeneko etxalde komunitarioko kideak kazetariari kontatu die funtzionarioek lur eremu berriak eskaini dizkietela lurgintzan jarraitu nahi duten 30 familioi baina ez direla batere egokiak, txikiak direlako, edo gaurko bizilekueetatik urrunegi daudelako, asko lurzoru txarragoko muinoetan...

Hori gutxi balitz, gobernuak ez die onartzen baratze berrien ondoan bizitzeko adinako etxolarik ere eraikitzen, eta

protestalarien bozeramaileak esan zenez “honek lana eragozten die laborantzan aritu nahi dutenei. Laborariok gure ortuen ondoan egon behar dugu egunero, goizean oso goizetik hasita iluntzea arte”.

Azken baratzezainen mobilizazioak aspalditik datoz Hong Kongen, 2016an *Reporterre* hedabide frantsesak “*Hong Kongen azken baserritarrek aurre egiten diote etxegintzaren beroaldiari*” kronikan erakutsi zuenez. Marguerite Nebelszteinek Ma Shi Poko okupazio berezi bat aipatzen zuen: “Hong Kongeko iparraldean, azken baserri eremuetakoa den Ma Shi Po herrixkan, bi talde ikus ditzakezu elkarri gogor begira. Alde batetik, Henderson etxegintzako promotoreak bidalitako 150 goarda, bestetik militante talde bat zurezko paletez eraikitako dorretxo batean gotortuta. Nork emango ote du amore? Jendeak dorretxoan dauden sei ekintzaileei laguntzen die, janaria eta ura pasatuz baina telefonoentzako bateriak ere bai, komunikatu ahal izateko”.

Lubakiaren alde banatako bi taldeek irudika zitzaketan Hong Kongeko azken hamarkadotako garapen itzelaren irabazleak eta galtzaileak. 1949an Txinan sistema komunista ezarritakoan hasi zen orduan kolonia ingelesa zenaren hazkunde bizia, ihesi etorritako jendei esker. Hirurogei urtetan pasatu zen 700.000 biztanle edukitzetik 7.000.000 edukitzera.

Eraikitzea zen kontua. Hormigoiak suntsitu zituen arrantzaleen herrix-

kak eta baserri betetakoak, gero eta etxe-horraz luzeagoak eraiki ziren haietan, itsasoari eremuak hartu, mendien hegaletan ere eraiki...

Beti eraikitzeke lur gehiagoren gosez, 1990ean hasi zen gobernu aipatzen Ma Shi Pon hiri berri bat eraikitzea. Promotoreak geroztik banan-banan erosi zuten hango etxe, soro eta baratze bakoitza. 2010ean arnas berria eman zioten agintariak aspaldiko planari eta orduan hasi ziren azken baserritarrak antolatzen, batik bat beste eremuetatik kanporatuta hemen laborantzatik bizitzen hamarkadak zeramatzenak, tartean Mapopo etxalde kolektiboan ari direnak.

## BARATZEAK SUNTSITU ETA AGRI-PARK SORTU

Mapopoko laborari ekintzaile ezagunetako Cho Kai Kai da. Baratzeke lanetan eta salmentan emandako orduez gain, nekazaritzan hasi nahi dutenei irakasten eta etxaldea eskola-umeei bezala eta klase guztietako herritarri erakusten aritu ohi da: “Hong Kongi nekazaritzarako eremu oso txikia geratzen zaio, %4, eta horrekin ez da iristen hiri handiak kontsumitzen duenaren %2 ere ekoiztera. Hala ere, agintariak ez daukate lurroko zaintzeko borondaterik, % 80 abandonatuta dauzkate, eta etxegintzako promotoreek kantzer baten gisa dena harapatzen dute”.

Laborantzarako lur faltari erremedioa jarri nahian ari direla aspalditik aipatzen dute Hong Kongeko gobernutik. Neka-



### MAPOPO

ETXALDE KOLEKTIBOAN,  
BARATZEZAINA  
EGUNEROKO BEHARREAN.

zaritza, Arrantza eta Ingurumen sailak duela dozena bat urte jarri zituen abian lurren alokairu garestiak pagatzeko diru-laguntzak. *Hong Kong Free Press* hedabidearen kontuetan, hamar urtetan 484 eskari jaso zituen deialdi horrek eta horietatik 165 baserritarrenak baizik ez omen dira aurrera atera.

2016an Leung Chun-ying lehen ministroak gobernuaren konpromiso sakonagoa iragarri zuen lekuko nekazaritzarekiko: "Nekazaritzaren balioa ekonomian daukan pisutik harago doa. Lekuko nekazaritza garatzeak, elikaduraren jatorriaren aniztasunari aukerak handitzeaz gain, laguntzen du ere lurraren erabilera optimizatzen, landa eremuko ingurumena eta higiena hobetzen eta ekologia kontserbatzen". 500 milioi dolar hongkongtarrez (57 milioi euro) hornitutako funts berria sortu zuen nekazaritzaren

produktibitatea hobetu eta baserritarrei laguntzeko balio erantsi handiagoko proiektuetan.

Politika berriaren erakusgarri izan nahi omen du gobernuak iragarritako Agri-Park berriak, Hong Kongeko iparraldean 75-80 hektarea soro eta baratze antolatzea baimenduz labore komertzialetarako, loregintzarako, ekologikorako eta teknologia berriz osatutako nekazaritza egiteko.

Nekazari kritikoeek salatu dute Agri-Park hori nekazaritzari bizirauten laguntzeko baino *public relations* operazio bat dela, diseinatu duten agintari eta funtzionarioek ez dietela benetan nekazaritzan ari direnei galdetu ere egin: "Esan liteke aitzurrarekin lanean ari direnentzako izan behar luketela planok, ez masterrak dauzkatentzako edo ikerlariarentzako. (...) Laborantzak ez

du horrelako azpiegitura konplikaturen beharrik: aski duzu baserritarrei uztea lurra, ura eta argindarra".

Kenneth Wong Koon-kwai unibertsitateko geografia irakasle erretiratuak esan du Nekazaritza Politika Berria delakoa prestatzean gobernuak baserritarrek ez baina *hi-tech* enpresak zeuzkala buruan eta hori Hong Kongen ez dela ez praktikoa eta ez jasagarria: "Nekazaritza parkea kudeatzen baduzu enpresa bat bailitzan. (...) Aldiz, mundu osoan bezala Hong Kongen ere gazte asko ari da pentsatzen laborantzaren eta uste dute Lurra planetarentzako ez dela jasagarria soilik ikuspegi komertzialetik landutako nekazaritza. Nekazaritza sustatzekotan, ez duzu etekinak emango dituen negozio moduan aztertu behar, hori dagoeneko zaharkituta geratutako burubidea da". ●



# ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com


